

Apezak gaztigatuak



Xipri **Arbelbide***

1889an Errepublikarrak antiklerikalak ziren. Hauteskundeetan apaizek xurien alde bozkatzea eskatu zuten. Hemen xuriek irabazi zuten. Prefetaren manuz 40 bati paga kendu zieten.

Giltza-Hitzak: Errepublikarrak. Xuriak-Gorriak. Apezak. Paga kendua. Tokiz aldatuak. Erroma. Ohoreak.

En 1889 les Républicains étaient anticléricaux. Lors des campagnes électorales les prêtres demandaient à voter pour les Blancs. Ici les Blancs gagnèrent les élections. Sur ordre du Préfet la paye fut supprimée à 40 prêtres.

Mots Clé : Républicains. Blancs-Rouges. Prêtres. Suppression de paye. Changement de domicile. Rome. Honneurs.

En el año 1889 los Republicanos eran anticlericales. Durante las campañas electorales los sacerdotes pedían votar a los Blancos. Aquí los Blancos ganaron las elecciones. Por orden del Prefecto se suprimió el sueldo a 40 sacerdotes.

Palabras Clave: Republicanos. Blancos-Rojos. Sacerdotes. Supresión de sueldo. Cambio de domicilio. Roma. Honores.

* Apezetxea. F-64240 Aiherra.

1889an gehiengoan izan zuten errepublikarrek Frantziako deputatuen ganberan, lehen aldikotz: 366 ziren, oposizioan 210 zirelarik. Hemen, Biarnoko hiru deputatuak errepublikarrak ziren, Euskal Herrian aldiz bat baizik ez, Haulon Baiona-Ustaritzekoa.

Beste biak, Jules Labat Lapurdi Iparraldean eta Louis Etxeverry Baxe Nabarre-Xiberun eskuindiarrek ziren. Etxeberriren hautua baliogabetu zuten Parisen baizik eta apezek haren alde egin zutelak kanpaña. 1890an berriz joan ziren bozkatzera bainan egundainokotan pasatu zen, Berdoly, Uhartehiriko jauregiko erepublikararen kontra. Berdolyk sortua zuen *Le Réveil Basque* astekaria eta honen kontra Etxeverryk *Eskualduna*, biak elebidunak, bietan euskara bigarren maillean zelarik.

Frantzia osoan errepublikarrak nagusitu eta hemen gutiengoan gelditzea gain gaintetik gaitzitu zitzairen. Hobendun bat behar eta apezek gain joan zen beraz, predikuetan erran zutelakotz ez zitekeela bozka Elizako etsaien alde.

Gastiguz 56 apez tokiz aldatuak eta 29-ri paga kendua¹ izatea eskatu zion prefetak ministroari errepublikarren izenean.

Etant donné la passion et la mauvaise foi avec lesquelles ces prêtres ont attaqué le gouvernement et dirigé la campagne contre les républicains, en présence du résultat qu'ils ont obtenu, principalement dans l'arrondissement de Mauléon où l'on ne peut attribuer qu'à leurs agissements l'échec du candidat républicain, j'estime que des mesures énergiques s'imposent et j'insiste d'une façon toute particulière pour que leur traitement soit supprimé pendant un certain temps du moins. Cette mesure que je considère comme non moins nécessaire que justifiée est impérieusement réclamée par l'opinion publique : les républicains des Basses Pyrénées qui viennent de soutenir une lutte dont le résultat est tout à leur honneur considéreraient comme un acte de faiblesse s'il ne réprimait pas les agissements de ceux-là surtout qui demeurent d'irréconciliables adversaires.

Je suis heureux, Monsieur le Ministre, que vous voulussiez bien adopter mes propositions dans le cas où les 26 ecclésiastiques que je vous signale n'auraient pas été déplacés dans le délai de quinzaine que j'ai assigné à l'Evêché pour prendre la décision².

Zertaz ziren bada hobendun delako apezak. Mendiboure Aiherrako erreto-rak, zenbait urte berantago, errepublikako presidentari igorri gutunean dio akusatu zutela, errepublikarren alde bozkatzeta, debruaren hautagaien alde bozkatzeta, bekatu mortala zela, Jesusen pasioaren berriz egitea zela, errateaz prediku alkitik³. Jean Oiharzabal 30 urteko zapataina, Lissague 42 urte-

1. Bikario nagusiek ministroari 1890. ANF F 19/602-/139.

Euskaldunak ez ziren bakarrak: 321 izan ziren gaztigatuak orotara Frantzian. 1885an, mila-ko bat.

2. Préfet à ministre, 12.11.89. ANF F 19/5891.

3. A dit en chaire dans ses sermons des 15 et 22 septembre 1889 : Que ceux qui voteraient pour des candidats républicains, les candidats du diable, commettraient un péché mortel et renouvelleraient la Passion du Christ. 1895.02.03. ANF F 19/6025.

ko errienta eta Bruno Londaitz 75 urteko etxeko jauna zituen salatariak, jaun erretorak, dokumentuek diotenaz.

Ohartzekoa da, hirurak gorriak izanki eta halere mezan zirela. Hartuko dugu Oiharzabalen lekukotasuna:

J'ai entendu qu'il disait ceci : Donner la voix au candidat républicain c'est dire oui à l'ennemi de la religion, c'est commettre un péché mortel. C'est un péché de ne pas voter. Les Juifs, s'est-il écrié, ont vendu le Christ pour de l'argent, aujourd'hui on vend son vote pour un verre de vin. Il a dit encore que voter contre le candidat qui soutient l'église, c'est renouveler la Passion de J.C. J'ignore si notre curé M. Mendiboure a fait de la propagande en se rendant de maison en maison⁴.

Mendibourek bikario nagusieri idatzi zien, Morroxko gorrien hautagaiak ez zuela Aiherrako 250 bozetarik ehunik bilduko egin zuen bezala, 25 urte hartan herrian zen erretorak kanpaña egin balu haren kontra⁵.

Diharasarri eta bere lagunek Aita Sainduarentzat egin txostenean garbiki erraiten dute, denen jakinean zela ez zirela errepublikaren kontrakoak.

Inutile d'ajouter ce que tout le monde sait, que nous ne faisons point d'opposition à la forme républicaine du gouvernement (...) Mais par contre, tout candidat hostile aux droits de l'Eglise nous trouvera toujours en travers de son chemin, résolu, malgré tout à sauvegarder l'honneur de Dieu et la liberté des âmes⁶.

Nor sinets? Gauza segurra ez zela ikerketarik izan ikusteko akusazioak egia ziren ala ez, Etxeberri eta Labat, bi deputatuek Erromara idatzi zutenaz.

Cette suppression a été prononcée de la façon la plus arbitraire, sans enquête, sans débat contradictoires, sur la simple dénonciation d'adversaires politiques qui cherchaient surtout à faire annuler l'élection de l'un d'entre nous, sous prétexte d'ingérence cléricale⁷.

Haristoy apezka ere gaztigatuen zerrendan baitzen, bikario nagusiarri idatzi zion:

J'apporte un démenti formel le plus énergique à l'accusation dans toutes ses parties. Si elle est signée –car d'une dénonciation anonyme, un homme public n'en a cure –je veux une justification complète. Je l'établirai devant qui de droit, par des témoins sérieux du parti républicain de ma paroisse, car en pasteur qui ne fait pas de différence entre ses ouailles, j'aborde les paroissiens de ce parti et j'en suis accueilli aussi bien que par ceux du parti conservateur ou réactionnaire⁸.

4. Procès verbal d'enquête 89.10.31 ANF F 19/2505-119.

5. Mendibourek bikario nagusieri 89.11.21, ANF F 19/6025-217. Nolaz dago gobernuko artxibotan, apezak bikario nagusiei igorri gutuna?

6. Mémoire, 12 or., Batikano, AAEESS-Frantzia 1890-1891 Pos. 803, Fasc 421.

7. Labat eta Etxeberri aita sainduari 1890.10.20 Batikano 1890-91, Pos 803, Fasc 421, 60.

8. Haristoyek bikario nagusiarri 89.11.17, ANF F 19/5/5891.

Nolaz daude Estaduko artxiboetan, Mendiboure eta Haristoy apezek bikario nagusiei igorri gutunak? Jauffret-ek emanak?

René Cuzacq historilariak idazten du:

Les républicains voulurent-ils, sous le régime du concordat, procéder après leur victoire à «l'exécution» de quelques curés trop compromis ou trop ardents, en commençant par la suppression de leur traitement d'Etat? Il semble que le parti républicain vainqueur ait voulu ici donner une leçon au clergé⁹...

Errepublikaren kontra zelako fama egina baitzioten Diharasarriri, *catéchisme électoral* liburua idatzirik, (egiazki erregetiarra zen) ministroari igorri gutun luze batetan dio berak:

Il ne contient pas une seule assertion dont ne pût s'accommoder une république respectueuse de la liberté des consciences chrétiennes (...) Je travaille à écarter des fonctions publiques ceux qui voudraient garrotter l'Eglise, l'étouffer (...). Si la république respectait la liberté de l'Eglise, comme prêtre, je n'aurai plus rien à lui reprocher¹⁰.

Gaztigatuak izan eta, 12 bildu baitziren Ortzazeko apezetxean, apezpizku berriari idatzi gutun luze batetan galdetu zioten, ikerketa bat egin araz ziezaien Baiona eta Mauleko artxapezei, akusazioek egia zerasaten ala gezurra. Apezpikuak ez zuen delako ikerketa egin arazi¹¹.

Agorrekak ere ez du besterik erraten Batikanorako egin duen bere txostenean:

Monseigneur, sans m'avoir demandé la moindre explication, m'a infligé le déplacement réclamé par mes ennemis¹².

Ministroari igorri erantzunean, bikario jeneralek zioten akusapenak oso orokorrak zirela eta apezak ez zitezkeela Elizako bideetarik baztertu.

S'ils ont manifesté des préférences dans les élections, ils l'ont fait, non par hostilité au gouvernement, mais par intérêt pour la religion dont ils sont les ministres; et on ne peut leur en faire un crime (...). Cette lettre ne précise aucun grief particulier contre chacun des prêtres. Ils sont accusés d'une manière générale; vous voudrez bien nous permettre de croire nos prêtres aussi dignes de confiance que les hommes qui les ont dénoncés¹³.

9. René Cuzacq, Les élections législatives à Bayonne et au Pays Basque, II. T., 1870-1898, Lacoste, 91 or.

10. Diharassarririk ministroari, 90.01.06, ANF F 19/5/5891.

11. Mémoire 12 or. Batikano Pos 803, Fasc. 421.

12. Observations particulières, Annexe au Mémoire, Batikano Pos 803, Fasc 421-22.

13. Lassere eta Intxauspe bikario nagusiek ministroari 90.03.20, ANF F 19/6024-86.

Apezak ez gaztigitzeko, beste arrazoin bat ere ematen zuten bikario nagusiek: gaztigituak izateko, Elizako lege bat hautsi behar zutela. Hori ez izanez, Erromara dei eginen zutela eta han auzia irabaziko.

Les lois canoniques de l'Eglise prévoient les raisons pour lesquelles l'autorité épiscopale peut déplacer un curé malgré lui ; ces raisons nous ne les trouvons pas dans les cas de 29 desservants qui sont frappés, et en eussions-nous la volonté, nous n'avons pas le pouvoir de les déplacer (...). Nous savons qu'ils ne s'y soumettraient pas sans porter leur cause à Rome et sans y être contraints par une sentence du Saint Siège¹⁴.

Paga kendu zieten 42 apezari, (30 Euskal Herrian eta 12 Biarnoan), hori apezpikutegiko baimenik gabe egin baitzezaketan, apezak gobernuak pagatzen zituenaz gain.

Apezpiku berria sartu zen Baionan 1890an, martxoko 10an: François Jauffret errepublikarra, gobernuak hautatua, beste apezpiku guziak bezala. Kaseta guziek ongi etorria egin zioten hemen: gorriek errepublikarra zelakotz, xuriek apezpikua zelakotz. Lehen lana, gobernuaren gaztigua gautzatzea izan zuen. Negoziatu zuen eta 29-ri paga itzulia izan zakien ardietsi 13 tokiz aldatzean truk, gogorrenak gobernuaren arabera.

Votre excellence me rendrait un grand service si, en même temps, je pouvais annoncer la grâce d'un bon nombre des desservants de mon diocèse dont le traitement a été supprimé¹⁵.

Apezpikuak berehala obeditu zion ministroari. Zortzi egunen epea eman zien apezari tokiz aldatzeko. Hauek beren parrochia berrira joan eta Jauffretek berria jakin arazi Parisen.

Conformément aux prescriptions de votre dépêche du 18 de ce mois, j'ai l'honneur de vous faire connaître que sur les 13 desservants dont vous avez décidé le déplacement, 11 ont pris possession de leur nouveau poste¹⁶.

Falta ziren bi horietarik bat, Aiherrako erretora. Adina zuela, osagarri txarra zuela eta bikario bat emana zioten Aiherrarako. Ez zen Ainhoara joan apezpikuak manatu bezala, ez zuelakotz bere burua gai senditzen kargu berri horren hartzeko. Beskoitzera erretiratu zen, bere etxondora.

Obeditu zuten beraz apezek bainan Erromara dei egin, bikario nagusiek pentsatu bezala. Bestalde, hemen berean bazterrak harrotu ziren, saltsa sortu eta mindu.

Mer Puyolek, Dumay, ministeritzan Elizaz arduratzen zen gizonari idatzi zion:

14. Bikario nagusiek ministroari 1890.01.06, ANF F 19/5/5891-139.

15. Jauffretek ministroari, 90.03.20 ANF 19/6024-86.

16. Jauffretek ministroari ANF F 191.

L'évêque s'est donné les apparences, je dis les apparences, d'abandonner les siens et de livrer ses troupes (...). On a ici l'impression que l'évêque a trop subi l'influence de la Préfecture et que la Préfecture a trop joué à l'évêché. On croit que les attributions ont été confondues, et que pour avoir voulu cesser l'hostilité entre l'Eglise et l'Etat, on a oublié la séparation et la distinction des pouvoirs. Si la dissidence s'accroissait entre les catholiques et leur Evêque, l'autorité civile et le parti républicain seraient amenés à porter le dais et à faire cortège à l'évêque à la place des fidèles¹⁷.

Pierre Casteran izenpetu zuen batek plazaratu zuen liburutxo bat titulu honekin: *Le Préfet des Basses Pyrénées évêque de Bayonne*.

Ez dakigu nori igorri gutun batetan Haristoyek idazten zuen:

... Un Pays Basque presque en révolte contre son évêque. Bien plus, une protestation aussi énergique dans le fond que respectueuse dans la forme se couvre de la signature de tous les prêtres basques (Bayonne y compris)¹⁸ (...). Il est douloureux qu'en présence de ce mouvement on puisse dire «Après tout, je ne fais que défendre un gouvernement qui m'a nommé». Les visites au vu de tous entre l'évêché, la sous préfecture et la préfecture, des repas échangés, (...) le sous préfet proposant, choisissant les sujets, allant les trouver jusque chez eux pour leur proposer d'être vicaire général¹⁹, enfin la certitude de la bien prochaine exécution de 16 prêtres vénérables et le tout, sous la volonté du civil, a exaspéré tout le pays : c'est horrible tout ce qui se dit dans nos paroisses contre notre nouvel évêque²⁰.

Ez zuten besterik erran Aita Sainduarentzat egin txostenean apez gaztigatuek:

Deux jours seulement après son arrivée dans sa ville épiscopale, le mercredi 12 mars, Mgr se rendait à Pau pour dîner le lendemain chez le Préfet. Dix jours après, le lundi 24 mars, le préfet vint à Bayonne. Mgr alla de sa personne le chercher à la gare; et puis, le soir, il y eut à l'évêché un dîner intime, d'où tout élément ecclésiastique indigène fut exclu. Les seuls convives étaient M. Le préfet, M. le sous préfet de Bayonne, Monseigneur et son secrétaire particulier, amené de Marseille²¹.

Zauriaren gaineko pikoa, aintzineko bikario nagusiek asmatu bezela, Laurent Diharasarry Kanbotik Ortzaizera igorria buru, zazpik dei egin zuten Erro-

17. Puyolek Dumayri ANF F 19/6019-173.

18. Apez gaztigatuek Erroman pausatu txostenean, 200 izenez goiti erraten dute.

19. Bikario nagusitzat lehenik hautatu zuen J.P. Arbelbide misionesten burua, ez zuen Parisen onartu. (*Je ne saurai accepter M. Arbelbide qui est actuellement le Supérieur d'une congrégation non autorisée et légalement dissoute*). Dumayek prefetari 90.03.24, ANF F 19/6024-86). Bigarrenak, Garcia Hazparneko erretorak eza eman zion. Jauffretek ministroari 90.04.23. ANF F 19/6024-90. Bai eta Pabeko Jondoni Jakoke, diosesako parroquia handienakoak. Apezpikuak ministroari 89.03.20. ANF F 19/5891-78.

20. Haristoyen gutun batetarik, 90.05.07, ANF F 19/5891-78.

21. Mémoire *Batikano Pos 803, Fasc 421*.

mara. Horiek dira: Jean Baptiste Mendiboure Aiherratik Ainhoara izendatua, Jean Agorreca (Ortzaizetik Donazaharrera), Jean Pierre Bidart (Altzükürütik Hoztara), Arnaud Delgue (Donaixtitik Lasara), Pierre Meriategi (Lasatik Donaixtira) eta Jean Patient (Ezterentzubitik Lakarrira). Irabazteko xantza guziak bazituzten, Aita Sainduaren erranei jarraiki baitziren Frantziako gobernuak uzte ez bazuen ere.

Le gouvernement français a sur ce point une logique et une conscience très arrêtée : **le clergé ne doit pas s'occuper d'élections**. Le pape, ainsi que l'on peut s'en assurer par la lecture de ses encycliques, a une logique et une conscience diamétralement opposées : le clergé doit voter et faire voter pour les candidats favorables à l'Eglise. Comment alors condamner avec le gouvernement des prêtres qui ont agi conformément aux instructions du pape?²²

Ez da harritzeko Erromako kardinal handienetarik bi (ttipirik batere baldin bada!) bere alde bildu bazituen Diharasarik, eta abokat hoberena hartu. Hai-zea ez zen batere Frantziako antiklerikalaren alde Erroman. 26 orrialdetako txosten bat inprimatu zuten 7 apezek eta Batikanoko auzitegian pausatuta.

Beren txostenean, apezpiku berria katedralean sartu zelarik, Intxauspe bikario nagusiak egin mintzaldiko pasaia batzu ematen zituzten:

S'il fallait juger des prêtres du diocèse de Bayonne par le nombre de ceux qui, en ces derniers temps, ont été frappés ou menacés, certes vous auriez lieu d'être inquiet sur l'esprit qui les anime. Mais, grâce à Dieu, nous pouvons vous rassurer. Vos prêtres ne sont ni insoumis, ni turbulents. Ils sont esclaves de leurs devoirs et appliqués au soin de leurs paroisses. Ils se sont toujours montrés pleins de respect, de déférence et de soumission à l'égard de leur évêque. Ce qu'ils ont été pour vos prédécesseurs, ils le seront pour vous²³.

Etxeberrri eta Labat deputatuek, bai eta Chesnelong senadoreak bedera gutun igorri zuten Erromara apezzen alde. Alde zituzten ere Franzia guziko apezpiku, diputatu, senadore eta kasetari. Irabazteko xantza guziak bazituzten.

Son importance (l'affaire des prêtres basques) va toujours croissant. Il y a trois mois, il n'y avait qu'un groupe. Aujourd'hui il y a une légion. J'ai été stupéfait de voir parmi les documents authentiques qui ont passé sous mes yeux, une nombreuse correspondance d'évêques, de sénateurs, de députés, de journalistes, appartenant à toutes les contrées de France²⁴.

Gaitzeko saltsa izanen da gobernua eta Batikanoaren artean, hain zuzen *Ralliement* delakoaren giroan (Lavigerie kardenalearen mintzaldia Aljerren 1890ko azaroko 12koa da. Lavigerie, Diharasarriren adiskidea: Aljereko kalonje izendatua du). Apezek irabazten badute, eta irabaziko dute, beren aintzineko parropietara itzuliko dira. Gaitzeko ostikoa izanen

22. Puyolen gutun batetarik (18 orrialde!) 90.10.31 ANF F 19/6025-165.

23. Mémoire adressée à notre Saint père le Pape 8 av, 9 or. *Batikanos Pos 803, fasc 421*.

24. Puyol-ek Rampolla Kardinalari, 90.11.06, *Batikanos Pos 803, fasc 421*.

da, bai apezpikuarentzat, bai eta gobernuarentzat eta ez da horrelako beharrik hain zuzen Erroma eta Pariseren arteko harremanak doi bat eztitu nahiz ari direnean.

1. PUYOLEN URRATSA

Puyol Getariarra da. Sorbonan irakasle izan ondoan, Erromara izendatua izana, St Louis des Français elizako apez. Kargu horren ondoan, diplomazia urratsetan ere aritzen da, bai Parisko gobernuko arduradun den Dumay jaunarentzat, bai eta Batikanorentzat. Apezpiku izateko aipatua izana da, lehenik Soissons hirirako eta gero Erroman berean egonez.

Bera Baionako izanez, arartekoa egingen du Batikano, apezpiku eta apeztean artean Rampolla kardenalearen izenean.

Voyez l'évêque de Bayonne et les prêtres basques : dites-leur que leur litige peut-être une cause de difficultés entre le St Siège et la France et que le St Père a toute volonté de ne susciter aucun conflit avec le gouvernement de la République. Exprimez-leur le désir de sa sainteté qu'ils mettent fin à leur dissidence. Les prêtres retireront leur instance, et, alors, l'évêque pourra témoigner satisfaction de leur déférence au St Siège, en nommant le principal d'entr'eux, M. l'abbé Diharasarry, chanoine honoraire²⁵.

Diharassari batere ez du gustukoa Puyolek. Hona zer idatzi dion behin Dumay-ri:

Un petit curé de Cambo qui se permet d'écrire à un ministre de son pays une lettre insultante et de mauvais ton, et il ne s'y trouve personne pour rappeler cet énergumène à la raison. Il a toujours été mon ennemi implacable (...). Il me serait facile de retrouver nombre d'articles de son journal où il me traite comme un hérétique²⁶.

Bizkitartean egun bat pasatzen du Puyolek Ortzaize aldean Diharasarriekin, apezpikua ikusi ondoan eta honek esperantxa guti emanik.

Il me laissa bien entendre que je ne réussirais pas auprès de ses adversaires. Il me parut même qu'il l'espérait²⁷.

Aita Sainduak apeztei eskatzen die Elizaren onetan beren auzia utz dezaten, oso gaizki heldu dela. Bere adiskideak ikusi eta Diharasarrik onartzen du eta gelditzen Erroman hasi auzia.

Il fait campagne avec de nombreux et puissants amis : il ne pouvait les engager sans leur consentement. Il a pris leur avis. On lui a demandé d'obtem-

25. Puyol-ek Dumay-ri, 90.01.22 ANF F 19/6025-26.

26. Puyol-ek Dumay-ri, 90.01.22, ANF F 19/6025-26.

27. Puyolek Adrien-i, 90.10.31, ANF F 19/6025-167.

pérer aux désirs du Pape. Il a cédé et a écrit en cour de Rome pour retirer son instance et celle de ses amis²⁸.

Puyol itzultzen da apezpikute gira berri onarekin eta Jauffret-eri galdetzen dio, hark ere jestu bat egin dezan, hala nola Diharasarri ohorezko kalonje izendatuz, baina apezpikuak deusik ez du entzun nahi. Auzia gelditua dela jakinik ote du gogor egiten Jauffretek? Alabaina, auzirik ez izanez ez du gehiago deus arriskatzen.

Il semblait que je portais un arrêt de mort à ce pauvre prélat. Il m'a donné pendant deux heures, un spectacle de débilité physique et morale que je n'oublierai jamais.

Il prétendait que le coup était monté par Messieurs Ricard et Chambourdon; que le pape voulait le tuer, qu'il fallait le destituer et le remplacer par M. Diharasarry, qu'il fallait demander mille francs de rente pour aller mourir dans un coin etc... Il prenait sa tête entre les mains, se demandait s'il n'allait pas devenir fou, protestait que ma visite lui portait un coup mortel. J'ai beaucoup traité d'affaires dans ma vie, mais je n'ai jamais eu d'interlocuteur, parmi les hommes, qui ait montré une telle susceptibilité nerveuse²⁹.

Jauffretek erranik, bera ariko dela zuzenean afera horretaz Aita Sainduarekin, Puyol itzultzen da Erromara, axeri. Apezpikuak ez zuen Erromara idatzi Aita Sainduaren gutun bat izan arte.

Puyolek errana omen zion ministroa akort zela Diharasarri kalonje izendatzeko, eta ez zen hala. Aita Sainduak igorria zela bera, dudan eman zuen orduan. Baina bere ohorea zuen jokoan ikusten oroz gainetik Batikanora idatzi duenez:

Nommer Monsieur Diharasarry chanoine honoraire serait me condamner moi-même et devenir l'objet de la risée publique.

Gutun hori ez dugu ikusi. Errepostua abendoko 4an igorri dio. Jauffretena ez ote da aski goiz heldu Erromara, ala ez du pizu handirik izan? Dena den abendoko lehen egunetan lau apez monsignore izendatuak dira, Aita Sainduari obeditu sari. Diharasarry, Mendiboure, Meriategi eta Erromara dei egin ez zuen bat, Hiriart Behauzekoa, azken hau, iduriz, telegrama batetan izena gaizki idatzia izanik.

2. ESKANDALA

Oraikoa bai eskandala dela! Ez apez eta girstinoen artean baina Parisen eta gorrien munduan. Nonbaitik zerbait zilaturik Prefetak ministroa abisatzen du ohorezko izendapenak izan beharrak direla lau apezentzat eta

28. Puyolek Adrien-i 90.10.31, ANF F 19/6025-167.

29. Puyolek Adrien-i 90.10.31, ANF F 19/6025 168.

zerbait egin behar duela berehala, ez dadien horrelakorik gerta, bai gobernuaren onetan, bai eta Jauffreten onetan. Berantegi. Izendapenak joanak dira Erromatik.

Konkordatua dela eta, Erromak ez dezakeela ohorezko titulurik eman Frantziako apezpei, gobernuaren baimenik gabe diote Parisen. Bainan bereziki zer ostikoa gobernuaren kontra, apezten gaztiguen ondotik. Eskuineko kasetek ohorezko titulu horiek berehala erakusten dituzte Erromako sustengu bezala gaztiguen kontra.

Prefetak gutun bat igorri zion ministroari, *Eskualduna* astekariak agertu Etxeberri deputatuaren komentarioekin, oso efetu txarra izanen dutela baitio:

Tous les efforts si péniblement poursuivis pour ramener le clergé du diocèse au respect du gouvernement et à l'observation de ses devoirs de neutralité sont irrémédiablement perdus si l'Etat ne parvient pas à relever cet outrageant défi³⁰.

Lehen ondorioa: Puyol bere kargutik botatzen dutela egunetik biharamunera ohorezko titulu horien hobendun bezala. Eta egia da hark dituela izenak proposatuak Batikanon.

Il y a lieu de profiter de l'engagement pris par Mgr Jauffret de s'incliner devant les désirs du St Père dès qu'ils seront notifiés directement, pour l'inviter à donner le titre de chanoine honoraire à M. Diharasarry (...). On pourrait en même temps signaler l'état de santé du prêtre Mériatéguy qui se meurt dans sa nouvelle paroisse de St Just qui lui a été assignée. Rien de plus à demander à l'évêque de Bayonne. Ce n'est guère, mais cela suffit. Il comprendra et on comprendra, sans qu'il soit besoin de plus grandes explications (...). Un titre de camérier secret au nom de M. Antoine Mendiboure et un titre de Missionnaire Apostolique à la Propagande pour M. Patient, curé de Lacarre³¹.

Ez zuketan konfidantza handirik Erroman Baionako apezpikua baitan: Puyolek haren gain uzten zituen biak ere Erromak berak saristatzen ditu: Diharasarry eta Meriateguy Monsignore izendatuak dira bestekin.

Rampolla kardinaleak gutun bat igortzen dio bai, Frantziako ambaxadoreari, ohorezko titulu horiek eman dituztela, bakarrik auzia gelditu sari, besterik gabe. Baina beste interpretazioa ere hor baita.

Kardinalaren gutuna aski baldin bada Ministroarentzat, ez Barthou, Biar-noko deputatu gorri gaztearentzat. Paradaz baliatu nahi du bere buruaz mintza arazteko. Deputatuen ganberan galdera bat egiten du afera horretaz 1891an urtarrileko 27an. Bi hilabete lehenago girixtinoek errepublika onartu behar zutela errateko, Lavigerie kardinaleak egin mintzaldia dudan ematen du. Ribot ministroak afera guziaz Puyolen gain ematen du Batikanoa xurituz.

30. Prefetak ministroari, 90.12.27, ANF F 19/2502-150.

31. Puyolen txostena Rampolla kardenaleari, Batikano Pos 803, Fasc 422-83.

Bainan Frantziako kasetak guzietan, xuri ala gorri, aipatzen dute Barthou deputatua, bere galdera eta deputatu zurien erantzunak.

Bazterrak ezituzeko ministroak hitz ematen du, ohorezko jauntziak (sotana ubela, apezpikuena iduria eta beste) ibiltzea debekatua izanen zaiela lau apezpei. Apezpikuaren gain ematen du debekuaren gauzatzea³². Bainan honek erantzun, ez daitekeela Erromak hartu erabakien kontra joan.

Dans sa lettre du 29 janvier, Votre Excellence me charge de notifier aux quatre prêtres de mon diocèse qui ont obtenu des distinctions honorifiques du St Siège, la défense d'en faire usage. C'est, je n'en doute pas, par déférence pour l'autorité épiscopale que vous me confiez cette notification ; mais je prie votre Excellence de considérer que je ne puis le faire sans paraître m'opposer à l'exécution d'un acte du Souverain Pontife, ce qui serait, de ma part, manquer aux exigences sacrées de la subordination ecclésiastique³³.

Gero ikerketa bat egin arazten diote poliziarri Diharasarriz: Baionan ikusia izan da bere jauntzi berrietan Cinq Cantons aldean:

Revêtu d'un costume extraordinaire semblable à celui d'un évêque. Ce costume comprenait une douillette garnie de boutons violets, un chapeau entouré d'un cordon violet auquel étaient attachés deux glands de même nuance, retombant sur la nuque (...). Son attitude fière semblait dénoter que sa démarche ainsi faite à travers les rues de Bayonne n'était qu'un défi jeté à la face de son évêque et au Gouvernement de la République³⁴.

Beste behin Donazaharreko elizan, ikusia da igande batez³⁵. Bainan ez zuen luzaz iraun, delako sotana armairuan gelditu zen.

Emeki emeki bazterrak baretzen dira. Apezpikuak bi egun pasatzen ditu Ortzaizeko apezetxean Diharasarriren konpainian eta uzten du deputatu gai aurkeztera ondoko bozkaldietan. Morroxo nagusitzen zaio, Bidaxuneri esker.

Mendibourek Félix Faure-ri gutun bat igortzen dio 1895an errepublikako presidente izendatzearen kariatara ematen duen amiztian sar zezan eskatuz: Monsignore jauntziak ibiltzeko debekua kendua izan dakion eta pentzio bat eskatzen du: bost urte hartan paga kendua izana eta ez du deus hunkitzen. Ez dakigu zer ondorio izan duen eskutitz horrek.

Errepublikarrei doakienaz, badakigu gogortuz joan zirela bazterrak eta laster etorri zirela Belokeko fraileen haitzatzea, euskarazko katiximaren debekua, fraile eta serorentzat eskola egiteko debekua eta azkenik eliza, apezpikuteği, seminario eta gaineratiko Elizari kentzea.

32. Jauffretek ministroari 91.02.03 ANF F 19/6025-122.

33. Jauffretek ministroari 91.02.03 ANF F 19/6025-122.

34. Komisarioaren prozedura: ANF F 19/6025-107.

35. Mendibourek Félix Faure-ri, 95.02.03.

Bere ikusmolde errepublikazaleari jarraiki zitzaion Jauffret, egun batez errepublika on bat etorriko zelako itxaropenean, bainan hau urrunera ere ikusi gabe hil zen. Mende erdi bat igurikatu beharko da Eliza eta Errepublikaren arteko harremanak normaltzeko laugarren errepublikarekin.

Errepublikarren gogortasun horri zor dio Iparraldeak hoin luzaz eskuin bozkatzea. 1893tik 1906rat gure hiru deputatuak gorriak izan ziren. Eta gero hiruetarik biga. Lehenago ere, Renau, Xaho, Dindaburu eta beste, gorriak izanak ziren.